

## Gardentasuna, zintzotasuna eta partaidetza

1. Konpromisoa higiene demokratikoarekin. Zinegotzi kargua hartzen dutenen bitarteko tekniko eta ekonomikoen erregulazio zorrotza eginen dugu, lan-baldintzak hobeturik –betiere gardentasunez jokatzuz– baina, aldi berean, pribilegio- eta abusu-egoerak oro desagerrarazita. Gobernu honek konpromisoa hartzen du Osoko Bilkuran onetsitako mozioak sustatzeko.

2. Kode etikoa izanen da Alkatearentzat, zinegotzientzat eta goi-karguentzat, bateraezintasun zorrotzekin. Kargu bat pertsonako eta ordainsari bat karguko. Opariak jasotzeko debekua. Protokolo- eta ordezkapen-aurrekontua ahalik eta gehien murriztuko da, nahitaezkoa dena bakarrik utzita.

3. Herritarrei zuzendutako txostena eginen da, non xehatuko baita nola zeuden, udal-gobernu berria Udalera iritsitakoan, Udaleko diru-kutxen egoera ekonomikoa eta finantzarioa, zerbitzuen pribatizazioa, higiezin-ondarea eta zorra. Txosten hori Herritarren Batzarra-Hiriko Gizarte Kontseiluari aurkeztuko zaio urtea amaitu baino lehen.

4. Udal Kontu-hartzailetzaren bitartekoak eta zeregina indartuko dira.

5. Inpartzialtasuna eta objektibotasuna ezarriko dira Udalean, eta horiek epaimahaietara ere hedatuko dira, enplegu publikorako hautapen- eta sarrera-prozeduretan, kontrataziokoetan edo diru-laguntzak emateko direnetan. Halakoetan, presentzia handia eduki behar dute karrerako funtzionarioek eta haietatik at utziko dira, ahal den neurrian, izendapen askeko kargu politikoak. Administrazio-kontratazioko mahaietan, udal-talde politiko guztien ordezkariak hartuko dute parte, txandaka.

6. Hiru hilean behin, jendaurrean jakinaraziko dira udal-aurrekontuaren betetze-mailari buruzko datuak. Erraztu eginen da Iruñeko Udalak eta haren erakunde autonomoek egindako administrazio-kontratuen, indarreko hitzarmenen eta diru-laguntzen erregistro publikorako sarbidea. Orobat, Udalaren jabetzakoak diren enpresa-sozietate publikoek egindakoei dago-kienez. Horrez gain, beste erregistro publiko bat sortuko dugu non jasota geratuko baitira kargu publikoek Udaletik eta udal-erakunde eta -enpresetatik jasotzen dituzten diru-sarrerei buruzko datuak. Halaber, informazio hori azkar eta erraz eskuratze aldera, sistema bat abiatuko da –Herritarren Behatokiaren parte izanen dena–, Udalaren webgunean.

7. Urtero, sozietate publikoen kontuak eta egoera ekonomikoa argitaratuko dira, Udalaren zein haren erakunde autonomoenak ere publikoak diren gisa berean. Orobat, sistema bat egokituko da, Udalaren webgunean, informazio hori erraz eskuratzeko.

8. Protokoloari buruzko Udal Ordenantza onetsi behar da, zehazteko nork hartu behar duen erabakia –eta nola– honako hauei buruz: ohore eta sari ohoragarriak; Udalaren presentzia protokolozko ekitaldietan nahiz prozesio- eta kale-desfileetan; Udalbatzak hiriaren izenean aritu behar duen kasuetan, haren osaera eta ezaugarrien erregulazioa; festa-jantziak eta noiz erabili behar diren; Sanferminak iragartzeko Txupinazoa nork botako duen erabakitze prozedura.

## Eraginkortasuna kudeaketan

9. Udal-antolakuntza berregituratuko da, baliabide publikoak optimizatzeko printzipioa aplikatuta. Horretarako, udal-alorren egitura arrazionalizatuko dugu, eta nabarmen murriztuko dugu izendapen askeko zuzendaritza-karguen kopurua. Helburuak dira gastu publikoaren kontrola, kudeaketa eraginkorra eta udal-politiken funtzionamendu integralagoa.

10. Batzorde paritario bat sortuko da Nafarroako Gobernuarekin, politika komunak edo partekatutako koordinatzeko eta udal-zerbitzu publikoen finantzaketa zuzen egiteko.

11. Epe ertaineko plan ekonomiko-finantzario bat egingen da, urtez urte aztertzekoa. Egoera ekonomikoaren eta finantzarioaren diagnostikoa izanen da, xedetzat hartuta gizarte-beharrei lehentasuna eman eta urte anitzeko inbertsio-plana egitea –egingarria dugun gastua planifikatze aldera–. Hori guztia zeharkakotasunari helduta egingen da, eta Udalaren alor guztiak elkarrekin lanean arituta, halako eran non helburuak izanen baitira Iruñearen garapen ekonomikoa eta finantزابide eta diru-sarrerren iturri berriak bilatzea –batez ere Europan, Nafarroako Gobernuan eta beste hainbat erakunde publikotan–.

12. Azterlana egingen da auzo bakoitzak eduki behar dituen oinarritzko zerbitzu publikoen estandarrak ezartzeko, Iruñeko distritu guztien egoera homogeneoa izan dadin ekipamenduei dagokienez.

Aztertu behar dira auzo bakoitzean aipatu zerbitzuak emateko behar diren ekipamenduak, bai eta zer estandar jotzen diren beharrezko –hirigintzan, ingurumenean edota jardun ekonomiko eta kulturallean– auzoak behar bezala gara daitezten.

Bestalde, baloratu egin behar dugu, baita ere, zer azpiegitura behar diren zerbitzua emateko hiri osoari. Azkenik, plan horren proiektua partaidetza publikoko prozesu batera bideratuko da.

13. Udal-aurrekontuko gastuak betetzean, gizarte- eta ingurumen-eraginkortasuna baliatuko dira irizpide gisa (eta ez bakarrik ekonomia-eraginkortasuna). Udalaren kontratuetan, klausula sozial deitutakoak sustatuko dira.

14. Udalaren diru-laguntzen deialdien kudeaketa arindu behar da, entitateek dirua ahalik eta lasterren eskuratzeko, eta haien jarduerak egonkorragoak izateko.

## Herritarren partaidetza

15. Erregelamendua eginen da herritarren partaidetzarako eta espazio publikoa auzo-tarrentzat berreskuratzeko, hiriko elkarteekin adostuta. Gobernu honen erabaki politikoa da araubide bat eskaintzea kontsulta lotesleak egiteko.

Erregelamendu horrek, besteak beste, kontu hauek jorratuko ditu: auzotarren eta herritar-elkarteen partaidetza Udalaren organoetan –hala nola agerpenak Osoko Bilkuraren zein udal-batzordeen aurrean–; aurrekontu partizipatiboak; herri-galdeketak egiteko eskubidea; eskariak egiteko eskubidea; auzotarren eskubidea, ekimenak eta proposamenak aurkezteko; jendaurreko entzunaldirako eskubidea; informazio-eskubidea; asoziazionismoaren sustapena.

16. Herritarren Batzarra-Hiriko Gizarte Kontseilua eratuko da (hautapen- eta funtzionamendu-erregelamendua). Hiriaren egoerari buruzko eztabaida eta gobernuaren kontrola izanen dira haren zereginaren parte nagusi bat. Kontseilu sektorialak herritarren partaidetzarako funtsezko giltzarritzat joko dira Udal honetan.

17. Auzo-kontseiluak sortuko dira, auzo bakoitzeko biztanleek eskatuz gero, partaidetza deszentralizaturako guneak izan daitezen, herritarrendako hurbilak. Hona haien eskumenak: Informazio-eskumenak. Informazioa jasoko dute herritar-kolektiboek eta auzotarrei argibideak helarazteko haien auzoak zuzenean ukitzen dituzten kontuei buruz.

Kontsulta-eskumenak. Xedea da Udalak kontsulta egitea haiei, lehen eskutik eza-gutzeko gune jakin batean bizi diren pertsonen eta taldeen iritziak.

Nahitaezko eskumenak edota eskumen lotesleak. Xedea da auzo bat ukitzen dituzten funtsezko alderdi batzuetan (hirigintza-planak, ekipamendu garrantzitsuak...), nahitaezkoa izatea auzo-kontseiluak txosten bat ematea Udalak ezer erabaki baino lehen.

Kudeaketa partekatuko eskumenak. Uste dugu kudeaketa partekatua egin behar dela, maila jakin batzuetan, Udalak hala egiteko alde aurretik zehaztu eta onetsitako esparruetan –balidin eta halakoek beren ingurunea soilik badute erreferentzia–. Hona adibide posible batzuk: herritarren partaidetza eskatzen duten jardun-planak, auzoko kultura- eta gizarte-jarduren finkapena eta antolamendua, gizarte- eta kultura-zentroen plangintza eta kontrola, etab.

18. Herritarren Behatokiaren eraketa. Leiho bat izanen da, udal-jardunaren edukiei irekia, bai eta hiriko benetako egoerari buruzko datu esanguratsuenei ere. Bilakaera-adierazleak bilduko ditu, udal-lanaren fiskalizatorako politika zehatz eta jakin batzuei buruz (pobrezia, arrazismoa, energia-kontsumoa, etxebizitza hutsak, zerbitzu publikoen egoera, segimendua, espediente-kontrola...) Kudeaketa Herritarren Batzarra-Hiriko Gizarte Kontseiluarekin partekatuko du.

19. Udal-jardunari buruzko informazioa ematen dugu webgunearen, aldizkari digitalaren, udal-irratia, komunikabideetarako irekita egonen diren udal-batzordeen eta beste zenbaiten bidez.

20. Partaidetza Eskola sortuko dugu.

21. Proiektu partizipatiboak eginen ditugu gune publikoak berreskuratzeko aldera (aurrekontuak, erreferendumak, asanbladak...).

22. Plan bat eginen dugu sustatzeko hala auzoen nortasuna nola gizarte-partaidetza haietan.

23. Asoziazionismoa sustatuko dugu, sare sozial baten sorrera bultzatuz eta ahalbidetuz, funtsezko elementua izan dadin hala boluntarioek parte hartzeko, gizarte-, kultura- eta udal-bizitzan, nola herritarrak defendatzeko, udal-erakundeen zein bestelako jardunaren aurrean.

24. Zuzeneko herri-galdeketak eginen ditugu proiektu handiei buruz, dela hiri osoari eragiten diotela, dela auzo bati edo gehiagori.

## Udaltzaingo-eredu berria

25. Iruñeko Udaltzaingoaren Plan Zuzentzaile berria eginen da hurbileko polizia-eredu bat zedarritzeko, balio demokratiko sendoenetan oinarrituta:

1- Hurbileko udaltzaingoa: zigortze hutseko joeretatik aldenia eta herritarren eskubide zibilak bermatuko dituena.

2- Gizarte-gatazkak konpontzeko bestelako era: gizalege-mota berri bat, non bitartekaritzak izan behar baitu gatazkak konpontzeko bidea. Plan Zuzentzaile berriaren abiapuntua adostasun zabal bat izan behar du, Udalekoa eta herritarren artekoa, eta, bestalde, plan dinamikoa izan behar du, unean uneko errealitatera egokitze modukoa. Horregatik bi urtean behin berraztertu behar da, eta Iruñean tartean-tartean gertatzen diren aldaketen arabera moldatu.

26. Lan-mahai bat sortuko dugu –Udalak, sindikatuek, Nafarroako Gobernuak, herritarrek eta bestek osatua– eztabaidatzeko egungo polizia-ereduaren eraldaketa sakon bati buruz. Eredu horretako poliziaren eginkizunak izanen dira, funtsean, gizarte-bitartekaritza, mugikortasunaren eta ingurumenaren kontrola edota larrialdien koordinazioa, eraginkortasuna betiere balioetsirik eta bikoiztasunak saihestuta.

Polizia zibileko zerbitzua emanen du, betiere askatasuna lehenetsirik, askatasunaren eta segurtasunaren arteko dikotomian. Benetako segurtasuna ezinezkoa da, askatasuna handia ez bada, halakoa non bermatu behar baitie pertsonari haien eskubideak gauzatzea.

27. Udaltzainburua Udaltzaren babesarekin hautatu behar da.

28. Orain dauden Babes Zibileko planak berraztertu behar dira –eta beste batzuk behar badira, horiek egin–, betiere premisatzat hartuta prebentzioa, herritarren segurtasun fisikoa, ondare kolektiboaren zaintza eta ingurumen-kalitate egokia.

29. Arau-hausteak eta zehapenak berraztertu behar dira, gutxieneko esku-hartzearen eta proportzionaltasunaren printzipioei helduta. Apustua egin behar dugu bitartekaritzaren alde, zigor- eta komunitate-esparruetan: Bitartekaritzarako Zeharkako Bulegoa.

30. Etengabeko prestakuntza-plan bat egin behar da agenteendako, bereziki alderdi hauek jorratzeko: trebetasun sozialak, erabiltzaileei eman beharreko tratua, gutxiengoaren eskubideak eta trataera, jokabide arrazista eta xenofoboen erauzketa, etab.

## Funtzio Publikoa

31. Beharrei buruzko azterlana egin behar da, eta udal-plantilla egokitu benetako beharren arabera. Proposatzen dugu azterlan bat egitea amortizatu beharreko lanpostuei eta sortu behar diren postu berriei buruz.

32. Lanpostu-zerrenda aztertu behar da era zorrotz eta koherentean, eta postu bakoitzean aritzeko eskakizunak zehaztu, eta lanpostuak sailkatu.} Alde horretatik, jo behar da lanpostuak homogeneoak egitera. LPZak tresna bizia izan behar du, beti benetako beharretara egokituko dena.

33. Berariazko esparru-oinarriak negoziatu behar dira, eta onetsi, berdintasuna bermatze aldera parte hartzeko orduan, merituetan eta pertsonen gaitasunetan, karrerako funtzionarioz osatutako plantilla hobetsirik eta behin-behinekotasuna murriztuta.

34. Ordutegien malgutasuna aztertuko da, herriarren beharretara egokitze aldera.

35. Ordainsariei buruzko politika berraztertu behar da, ordainsariek eginkizunen eta lanpostuen arabera izan behar baitute, eta objektibatuak –eta ez “nahi erara”–. Lanpostu bakoitzari dagozkion osagarriak zehaztuko dira.

36. Txertatu behar dira kalitate-prozesuak eta etengabeko hobekuntzakoak. Baliabideak optimizatu behar dira, eta gero haiek informatizatu. Administrazio zaharkitu bat digitalizatzek ez du administrazio hori moderno bihurtzen.

37. Arras hartuko dira kontuan Nafarroako Kontuen Ganberak bere urteko txostenetan emandako gomendio guztiak.

38. Negoziazio-prozesu bat abiatuko da gain-erako udal-talde politikoekin eta udal-langile eta haien ordezkari sindikalekin, neurriak hartze aldera plantillari eta udal-langileei buruz.

39. Enplegua banatzeko tresnak sortu behar dira –eta, besteak beste, txanda-kontratuak, erretiro aurreratuak eta lanaldi murriztuak sustatu–lanpostuak sortze aldera, baldintza duinetan.

39 bis. Bitartekaritzarako Zeharkako Bulegoa. Etengabeko prestakuntza-plan bat egin behar da Udaleko langileendako, bereziki alderdi hauek jorratzeko: trebetasun sozialak, tratua erabiltzaileekin, gutxiengoaren eskubideak eta trataera, jokabide arrazista eta xenofoboaren eruzketa, etab.

## Memoria historikoa

40. Gizarteak parte hartzeko prozesua eta nazioarteko ideia-lehiaketa abiatuko dira egungo Eroritako Monumentua (Nafarroak Gurutzadan Eroritako bere Hileei egindako monumentua) aldatu eta askatasunari, memoriari eta Bakearen eta Giza Eskubideen kulturari eskainitako gune bihurtzeko, ezein mugarik gabe. Hiri-kalitate handiko gunea izan beharko luke, hegoaldera egiteko igarobidea, ordokiaren eta Lezkairu auzo berriaren artean.

41. Elkarlanean arituko gara Nafarroako Gobernuarekin eta gai hau jorratzen duten elkarteekin, memoria historikoaren inguruko ikerketak eta dibulgazio-lanak sustatu eta haiei aurrekontu bat egozte aldera, batez ere, gorpuzkiak eta hilobi komunak lokalizatu eta ikertzeko zein gorpuzkiak hobietatik ateratzeko lanen kasuan.

42. Sinbologia frankista ezabatu behar da, memoria historikoa berreskuratu, eta ahaztuta geratu diren biktimei onarpena eta kalte-ordaina eskaini, Memoria Historikoari buruzko indarreko legeak beteta. Frankismoaren toponimia-zantzuak ezabatu behar dira gure kaleetatik, eta horien artean, egungo Rodezno Kondearen plazaren izena.

43. Gobernu honek berariazko konpromisoa hartzen du ekintza konkretuei heltzeko biktime guztiek behar dituzten onarpenari, justiziarri eta kalte-ordainari dagokienez, Bakearen eta Elkarbizitzaren aldeko Batzorde Berezia sortuta.

## Genero-berdintasuna

44. Emakumearen Zinegotzigoak eta Kontseiluak benetan eraginkorrak izan behar dute, eta erakunde feminista guztiei irekita egon, zeharkakotasun-bokazio argia erakutsita.

45. Berdintasun Plana egingen da, abiapuntu gisa hartuta genero-diagnostiko egoki eta gaurkotu bat.

46. Sustatu behar da, Emakumearen Kontseiluan egin beharreko eztabaidaren testuinguruan, Topaketa Zentro baten sorrera, bertan elkar daitezten emakume-elkarteak eta elkarte feministak, herri-mugimenduak, mugimendu politikoak eta Udala bera, helburu hartuta lan ko-

mun eta koordinatua egin, elkarren konfiantza berreskuratu eta sinergiak sortzea Emakumeak Ahalduntzeko eta Berdintasunerako Eskola martxan jartze aldera. Horren bidez, lagundu nahi dugu emakumeen ahalduntze pertsonala eta kolektiboa lortzen eta aurrera egiten, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gauzatzeko xedean.

47. Jarduteko protokolo bat egingen da, klase orotako eraso sexistei aurre egiteko.

48. Emakumeendako Udal Laguntza Zerbitzua (EULZ) sustatu eta harekiko koordinazioa lortu behar da, zentroa hiriko erdialdera eramanda.

## Gazteria

49. Gazteen aldeko erakunde arteko itun zabal bat egin behar dugu.

50. Proposatzen dugu Iruñeko Gazte Kontseilua sortzea, bertan parte hartu nahi duten gazte-elkarte guztiek osaturik eta inongo elkarteko kide ez direnek ere parte hartzeko bideak emanda, betiere alferrikako bikoiztasunik gabe Nafarroako Gazte Kontseiluarekin.

51. Gazteen Emantzipaziorako Bulegoa sortu nahi dugu jada existitzen den udal-zerbitzuaren baitako gune espezializatu gisara, honako hauek xede hartuta: enplegua, autoenplegua, prestakuntzaren zabalkuntza eta erregimen diferenteetako etxebizitzaren eskaintza –alokairuaren sustapena hobetsita–.

52. Sare bat sustatu nahi dugu auzo guztietan, gazte-lokalek eta aisia alternatiborako guneek osatua; halakoetan gazteek programa asoziatiboak, kulturalak, kirolakoak, eta aisiakoak garatzen ahalko dituzte –Civivox zentroekin eta Udalaren kirol-instalazioekin koordinatuta–, antolamendu-eredu gisara kogestioa lehenetsita.

53. Gazte Mahaiaren eskura jarri nahi da, edo Gazte Kontseiluaren eskura, Moja Agustindarren eraikina, bertan Gazteleku bat kokatzeko asmoz, kogestio bidez antolatua.

54. Bultzatu nahi dugu, Nafarroako Gobernuarekin koordinatuta, Aholkularitza eta Arreta Afektibo Sexualerako gune bat, betiere bikoiztasunik sortu gabe Nafarroako Gobernuaren antzeko zerbitzuekin. Gune horretan, hauek jorratuko dira: afektibitatea eta sexualitatea, metodo antikonzeptiboak, sexu-transmisiozko infekzioak, haurdunaldi-testa eta preserbatiboen doaneko banaketa. Bertan, LGBTI pertsoneri ere emanen zaie arreta.

55. Gazteen partaidetza sustatu behar dugu hiriko proiektuetan eta ekimen sozial edo kulturaletan.

## Aniztasuna

56. Sustatu nahi dugu kulturen arteko bene-tako bizikidetzeta eta hirian bizi diren pertsona guztiekiko begirunea (generoak, sexu-aukerak, jatorriak, dibertsitate funtzionalak eta kultura-zein erlijio-sentimenduak oro gorabehera...).

57. Arreta eta laguntza bermatu nahi ditugu pertsona migratzaileekiko kulturarteko bene-tako bizikidetzari begira, halako pertsonen administrazio-egoera edozein delarik ere. Baldintza berdinak bermatu behar zaizkie zerbitzu publikoak eskuratzeko orduan zein eskubideen aitortzan. Aitzitik, haien egoera kontuan hartu beharko da neurriak hartzeko, haien mantenua zein bizi-duintasuna bermatzeko xedez.

Udalak mantenu eta bizi-duintasun horietarako bide aktiboak faboratuko ditu proiektu kolektiboen bidez, dela hirian bertan, dela lankidetzan beste udal batzuekin. Lehenetsuna emanen zaio laguntza-sarerik gabeko migratzaileen egoeran esku hartzeari. Horretarako, etxebizitza babestua eskainiko da, gutxienez, bertan harrera egiteko larrialdi-egoeran dauden legalizatutako gabeko etorkinei.

58. Zenbait mekanismo abiaraziko dira pertsona migratzaileei ezagutza eta aholkua eskaintzeko harrera-gizarteaz lan-orientazioaz, atzerritarren legeeaz, hezkuntzaz, osasunaz (osasun-txartel indibiduala, OTI delakoa, lortzeko), etab. Ongietorri-protokoloa, lehen aldiz erroldatzean.

59. Ideiak Elkartrukatzeko Foroak. Auzoetan eratuko dira, auzoko gizarte-eragileek osatuta, kulturarteko bizikidetzeta sustatzeko helburuz. Migrazioari buruzko mapa bat egingen da. Teknikariak prestatuko dira, arlo horretan adituak. Kultur guneak sortu edo sustatuko dira, ikastetxe, institutu eta bestelakoetan, haietan bat egin dezaten jatorri ezberdinetako hurrek eta gazteek, elkarbizitza eta kulturartekotasuna garatze aldera.

60. Egun dauden etorkin-elkarteak sostengatu eta indartu behar dira, toki publikoak eta udalekoak eskainiz bileretarako zein kultura- edo festa-ekitaldietarako, bai eta kirol-instalazioak eta aisiarako eta gizarte-harremanetarako beste-lako tokiak ere.

61. Jarraitu behar da etengabe eguneratzen, auzoz auzo, immigranteen eta haien jatorriaren gaineko mapa. Erradiografia ahalik eta osatuen eduki behar da, ahalik eta hobekien esku hartzen lagundu eta esku-hartzeak sustatze aldera.

62. Laguntza eman eta segimendua egin behar da zaio etorkinen integrazioari, hezkuntza- eta osasun-baliabideei dagokienez.

63. Eskolatzeko-batzordea.

64. Udalak bi konpromiso sendo hartuko du esparru honetan, bere jarduna gidatuko dutenak:

1- Udalak bere egingen du jendaurreko erantzukizuna diskurtso eta politika arrazista edo xenofoboei aurre egiteko, jendaurrean agertuko delarik halakoan aurka.

2- Bestalde, erantzukizun aktiboari helduko dio mezu positiboak sortu eta zabaltzeko, migrazioari buruzko estereotipo edo mitoei hautesko duten mezuak alegia. Aztertutako behar dira etnia, jatorria edota erlijioa direla medio prebentzio-kontrolak ezartzen dituzten protokoloak oro.



## Gizarte Zerbitzuak I

65. Udaleko gizarte-zerbitzuen kudeaketa publikoa eta zuzeneko, halakoa non modu egokian berregituratu eta finantzatu beharko baita, Nafarroako Gobernuak ere lagunduta. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua bateratzea enpresa publiko bakar batean, plantillaren subrogazioaren bideragarritasuna aztertuta.

66. Gizarte Zerbitzuetako Zentroa sortu behar da, bertan integratuz, jada Udalean abiarazita dauden talde espezializatu ez gain, Etxebizitzaren bidez Gizarteratzeko Lantaldea (EGL-EISO-VI) ere. Indartu behar dira auzo-unitateetako lantaldeak eta instalazioak, baita auzotarrek erabiltzeko diren udal lokaletakoak ere. Baliabide horiek bideratu behar dira egindako eskariak hartu, artatu eta tramitatzera, bai eta komunitate-programei zein kulturartekoei eta auzokoei heltzera ere. Sarean lan eginen da inguruan inguruko entitateekin.

67. Gizarte-larrialdietarako etxebizitzari buruzko ordenantza tramitatu behar da, Udalaren beraren etxebizitzak eta Nafarroako Gobernuak Udalari utzi ahal dizkionak baliatuta.

68. Berraztertu eta indartu behar dira gizarte-larrialdietako egungo laguntzak.

69. Enplegurako trebakuntza- eta prestakuntza-programak ugaritu behar dira, gazteei eta lan-munduan sartzeko arazo bereziak dituzten beste populazio-multzoei begira. Handitu behar dira gizarteratzeko eta lanera bideratzeko lantaldeak.

70. Udaleko gizarte-zerbitzuek Hautzaroaren Plana egin behar dute, NUPek egindako diagnostikoa abiapuntu hartuta, eta haur eta nerabeendako prebentzio-lantaldeak auzo guztietara hedatu behar dira, arian-arian. Berrantolatuta eta indartuta behar da Haur eta Nerabeendako Laguntza Talde espezializatua (HN-LT-EAIA), eta beharren arabera egokitu.

71. Hobetu behar dugu adinekoei emandako arreta, etxez etxeko laguntza eta ostatu-zerbitzuak gehituz auzo guztietan. Programa berri bat garatu behar dugu, bakarrik bizi diren adinekoei sarean laguntzeko.

72. Pobreziaren aurkako eta etxebizitza duinaren eta enpleguaren aldeko ituna. Akordioa sinatu behar da eragile sozial eta sindikalekin, plan oso bat egiteko, baliabide publiko eta sozialekin koordinatuta.

73. Panel Soziala prestatuko da, Herritarren Behatokia, hiriaren egoera soziala ezagutzeko eta jarraipena egiteko oinarritzko datuak biltze aldera: gizarte-bazterkeria, pobrezia, etxebizitzak eskuratzeko aukerak, eskolatze-ara-zaok, baliabide publiko eta pribatuak, etab.

74. Jarrera tinkoa hartu behar da espetxe-politika aldatzeko beharrari dagokionez, betiere oinarri hartuta Giza Eskubideekiko begirunerik zorrotzena. Iruñeko espetxea hiriko partetzat joko da, halako eran non hango populazioari gainerako herritarrei emanen zaien arreta bera ematen zaie, baldintza berdinetan.

75. Pobrezia energetikoari aurre egiteko plana garatuko da, Nafarroako Gobernuarekin koordinatuta.

76. Auzoetako gizarte-sarea antolatze edota berpizteko proiektu komunitarioak egin behar dira.

## Gizarte Zerbitzuak II

77. Hiriko Plan Estrategikoa egin behar da, eredu sozial eta ekonomiko jasangarri baten alde. Bultzatu behar dira ekonomia solidarioa, tokiko merkataritza, kontsumo arduratsua, energia berriztagarriak, mugikortasun jasangarria, gizarte-alokairuko etxebizitzak, kooperatibismoa, etab. Halaber, Ekonomia suspertzeko plana abiarazi behar da, ekonomia solidarioaren formulei lehentasuna emanda langabezia-maila handienak eta jarduera ekonomikoaren indize txikienak dituzten auzoetan.

78. Autobus-geltoki zaharren parte bat azoka sozial gisa atonduko da, Udalbatzak jada onetsita dituen baldintzetan.

79. Azoka ibiltariak arautzen dituen Ordenantza indartuko da, ekonomia solidarioko merkatuak sustatze aldera.

80. Laguntza emanen zaie diru sozialeko ekimenei.

81. Lankidetzak-akordioak bultzatuko dira banka etikoarekin.

82. Konpromisoa hartzen dugu Administrazioaren kontratuetako hainbat kontratu sozialak izan daitezen: gutxienez, kontratu guztien % 6 izanen dira halakoak.

83. Enpleguaren aldeko Mesa sortuko dugu, non udal-talde guztiek parte hartuko baitute, bai eta udal-teknikariek eta erakunde ekonomiko, sozial eta sindikalek ere. Mahai horrek, Udaleko enpleguarekin lotutako aurrekontu azpiprogramak aztertu eta balioztatu ondoren –eta, zehazki, Prestakuntza eta enplegu-sustapeneko, Gizarte eta lanerako orientazioa eta laguntzako, Lantegi-eskola eta enplegu-lantegietako, eta Gizarte-enplegu babestuko–, txosten bat idatziko du, zeina Udalbatzak onetsiko baitu, berehala aplikatzeko.

84. Lehentasuna eman behar zaio Arantzadiko Parkea enplegu lan-tegi-eskolaren proiektua berriro ere abiarazteari.

85. Zuzeneko enplegua sortu behar da, laguntza sozialeko programak eta zenbait udal-zerbitzuak handituz eta azpikontratatu-tako hainbat zerbitzuren zuzeneko kudeaketa berreskuratuz, arreta berezia eman behar-tsuenei.

85 bis. Dibertsitate Funtzionaleko Udal Kontseilua sortu behar da, neurri integratzaileen zeharkakotasuna ziurtatzeko Udal osoan. Horretarako udal-ordenantza bat egiten da, xede hartuta irisgarritasun unibertsala eta autonomia pertsonala ahalbidetzea. Udalaren jendaurreko ekitaldi garrantzitsuetan honako hauek behar dira: keinu-hizkuntzazko interprete bat, begizta magnetikoa, lokala irisgarria izatea eta agiriak braille sisteman.

## Mugikortasun jasangarria

86. Udalak bere egin behar ditu, era programatuan, Iruñerriko Mugikortasun Jasangarriko Plan Integralaren ildoak, Iruñerriko Mankomunitatearekin elkarlanean eta koordinatuta, abiapuntutzat hartuta apustu argia egin behar dela eskualde-garraioko eredu eraginkorrago baten alde –jada balioetsita dagoen Metrobus proiektua kontuan hartuz–. Kudeaketak publikoa eta zuzenekoa izan behar du, eta tarifa-politikak, soziala eta ingurumenaren aldekoa. Aztertu eta baloratu da Iruñeko espexera joateko eskualde-autobus bat jartzeko aukera.

87. Oinezkoentzako ibilbide eta pasealekuen sarea osatuko da.

88. Plan bat egin behar da lurpeko aparkalekuen kudeatzaileekin eta Alde Zaharreko zein I. eta II. Zabalguneeetako auzokideekin, aparkaleku horien erabilera optimizatzeko sistemak bilatu eta auzo horietan bizi direnen eskura jartzeko.

89. Bizikletaren Plan Zuzentzaile Partekatua. Egun dagoen nahasmendua antolatu, eta arrazionalizatu behar da, eta lehenetsuna eman bizikletarako oinarritzko sareari zein errei seguruak ezartzeari, hiribide jakin batzuetan, eta, ahal den kasuetan, bi aukera horiek uztartu. Besteak beste, jarduketak hauek proposatzen ditugu:

Sare seguru eta funtzional bat egituratzea, konexiorako oinarritzko ardatzetan oinarritua, etorbide handietan, eta ziklo-kale delako bidez osatua, auzoetan dagoeneko ezarrita dauden 30eko eremuetan (abiadura mugatuko eremuak).

Pio XII.aren etorbidean eta Navas de Tolosa kalean barnako bide-proiektua, Iruñeko erdigunea lotzeko Barañainekin, Unibertsitatearekin, ospitale-eremuarekin...

Zirkulazioa baretzeko 30eko eremuen sustapena, elkarbizitzarako eta erabilera partekatze gune gisara. ZIKLOBIDEAK (Mendillorri, Milagrosa-Arrosadia, Txantrea, Zabalgunea...)

BIZIZ (NBICI) zerbitzua bultzatu eta berrikustea, alde aurretik azterlan bat eginda, alokairu-postuen kopurua eta kokapena baloratzeko.

Ordenantza bat bultzatzea Iruñerriko bizikleta-zirkulazioaren gainean, Bizikletaren Behatokiarekin elkarlanean.

Bizikletak uzteko aparkaleku-sarea, hirian barna (interes orokorreko leku guztietan, ikastetxeetan...).

Lanera bizikletaz joateko kanpainak bultzatzea.

Udal zerbitzuak bizikletaz egiteko bultzada (Udaltzaingoa, mandatariak...), jorkaera-ohitura berrien adibide moduan.

Kontzientziazio-, sustapen- eta presakuntza-kanpainak, bizikletaren erabilerrari buruz.

Erabilera on eta egokien eskuliburua eta Iruñeko bizikletendako sarearen mapa egitea.

90. Eskola-bideak proiektua martxan jartzea, garraiobide jasangarrien erabilera bultzatzeko hiriko ikastetxeetara joan eta ikastetxeetatik itzultzerakoan. Autonomia-ohiturak piztea neska-mutilengan.

## Ingurumena

91. Iruñean plastikozko poltsen erabilera mugatzeko jarduketak sustatuko ditugu, Mankomunitatearekin koordinatuta. Illoak ezar daitezke ohiko merkatariekin elkarlanean jarduteko.

92. Iruñerriko eraztun berdea egin nahi dugu, eskualdeko gainerako herriekin koordinatuta.

- Hiria basoberritzeko plana.
- Berreskuratzea zuhaitz-inbentarioa.
- Hiri-baratzeen sarea.
- Hiri-baratzeak sortzeko aukera ematea ekipamenduetarako aurreikusitako orubee-tan, ekipamenduak garatzen ez diren bitartean, betiere prekarioan.
- Zuhaitzak babesteko ordenantza.

93. Arga ibai-parkearen Iruñeko tartearen kudeaketa Iruñerriko Mankomunitatearen eskuetan uztea, horrek kudeatzen baititu parkearen gainerako tartearak.

94. Energia Plana egin nahi dugu, energia-kontsumoa murrizteko, energia berdeari lehentasuna emateko eta hiriko energia-auto-sufizientzia bultzatzeko.

Neurriak hartu behar dira energia berriztagarriak bultzatzeko eraikin publiko eta pribatuetan. Sustatu behar da energia-kontsumo publikoaren kontratazioa energia berdeko kooperatiba sozialekin egin dadila. Kooperatiba horien aldeko apustua babestu behar da, gizarte-kanpainen bidez.

95. Azterlana egin nahi dugu energia berriztagarria ekoizteko proiektuak abiatzeko, arreta berezia emanez eguzki-panelen instalatzeari.

96. Pixkanaka-pixkanaka baina aski bizkor, motor elektrikoak jarri behar dira Udalaren ibilgailuetan, barne-errekuntzako motorren orde. Bizikletaren erabilera sustatu behar da udal-zerbitzuetan.

97. Energiaren Partzuergoa. Energiaren Udal Partzuergoa sortu nahi dugu, non parte izan ahalko baitira hiriko partikular guztiek eta partikularren erkidegoek. Erakunde horrek eginkizun hauek izanen ditu:

- Argibideak ematea, aldian aldiko kanpainen bidez, autoekoizpenaren eta autokontsumoaren onurei buruz.
- Kideen administrazio-tramiteak kudeatzea energia-autoekoizpenari eta -hornidurari dagokionez.
- Buruzagi aritzea hiriko eraikinetako teila-tuetan energia garbiak sortzeko gailuen instalazioa galarazten edo oztopatzen dituzten arau eta legeak aldatzeko orduan.
- Zergak arintzeko eta inbertsioei laguntzeko politikak sustatzea, energia-autoekoizpenari dagokionez.

98. Hiriko mapa sonikoa egin behar da, ingurune-zarataren mailak ezagutzeko kale eta plaza nagusietan, egunez zein gauez, eta neurri zuzentzaileak hartzeko kutsadura akustikoaren kontra.

Hirigintzako neurriak planifikatu behar dira, zarata murriztu edo ezabatze aldera.

Hezkuntza mailako zein herritarren kontzientziaziorako politika egin behar da kutsadura akustikoaren muntaz eta ondorioez hiriko bi-zi-kalitatean.

99. Kutsaduraren aurkako larrialdi-protokoloa.

100. Jarduera sailkatuen zerrenda egin behar da, haien ahalmen kutsatzailearen arabera – benetan dutena edo izan dezaketena –, dela abian daudela, dela abiatzekoak direla, eta hartu beharreko neurri zuzentzaileak finkatu behar dira, halako eran non horiek betetzea izan behar baitu jarduteko edo instalatzeko lizentziak eskuratzeko baldintza.

## Etxebizitza

101. Sortu behar da Etxebizitza Sozialerako eta Birgaikuntzarako Bulegoa, alokairu sozialeko etxebizitza-burtsa bat kudeatze aldera.

Horretarako irizpide izanen dira honako hauek: dauden baliabideak arrazionalizatu eta berrantolatzea, garesti ateratzen diren bikoiztasunak ezabatzea eta eraginkortasuna hobetzea, zerbitzua ematerakoan. Hona haren eskumenak:

Hitzarmen bat egitea Nafarroako Gobernuarekin, baliatu ahal izateko hala ordaindu gabekoak edo kalteak estaltzeko zerbitzua nola Gobernuarenak diren etxebizitzak.

Etxebizitzak partekatze programak bereziak sustatzea, bakarrik bizi diren pertsonen eta etxebizitza behar dituztenen interesak bateratzeko.

Alokatutako udal-etxebizitzak kontserbatu eta haien baldintzak hobetzea, eta kontratuak berraztertu eta errentarien egoeraren arabera egokitzea.

Etxebizitza publiko eta pribatu hutsen errolda –horri erantsita Udala jada etxebizitzaren egoerari buruz prestatzen ari den diagnostikoa–.

Ordenantza fiskala, bankuen eta merkataritza-sozietateen esku dauden etxebizitza hutsei buruz.

Jardunbide egokien eskuliburua, gainerako etxebizitza hutsetarako.

Diru-zuzkidura eraikinak erosi eta birgaitzeko, haietan bizi direnek hori egitea ezinezkoa duten kasuetan; halakoetan, akordio partikularrak egin daitezke egindako inbertsioak gerora berreskuratzeko, adibidez, zor-aitorpenaren edo horren antzekoen bidez.

102. Parlamentua hertsatu behar dugu Etxebizitza Hutsen Legea berreskuratzera –Alderdi Popularrak haren kontra baitu jarrita errekurtsioa–. Lege hori oinarri hartuta egin behar du Udalak benetan hutsik dauden etxebizitzaren errolda, Okupatu gabeko etxebizitzaren gaineko zerga aplikatzeko, eta alokairuen eskaintza handitu eta haien prezioak murrizteko.

103. Etxegabetzeen aurkako plana:

Iruña Etxegabetzeen aurkako hiri deklaratu behar da.

Aholkularitza eta bitartekaritza eskaini behar dira banku-erakundeetara jotzeko, Abokatu-en Elkargoarekin elkarlanean, eta Hipotekek Kaltetutako Plataformekin eta etxebizitzaren aldeko kolektiboekin koordinatuta.

Berraztertu behar da lankidetzari eutsi behar ote diogun bitartekaritza-zerbitzuak onartu ez eta alde aurretik Udalarekin hitz egin gabe etxegabetzei ekiten dieten banku-erakundeekin.

Saihestu behar da, ahal den neurrian, Udaltzaingoak parte hartzea etxegabetzetan.

Ordenantza fiskal bat egitea zergak jartzeko kutxazain automatikoak bide publikoan jarri eta ustiatzeagatik –hortik lortutako diru-sarrerak alokairu sozialera bideratuta–.

## Hirigintza

104. Iruñerriko Hirigintza Koordinazioko Plana egin behar da Iruñerriko gainerako udalerriekin batera, kontuan hartuz horri buruz dauden hirigintza-arauak. Xedea da Iruñerriko gainerako udalerriek eta Iruñeak bat egiten duten elkar-guneak arrazionalizatzea, hirigintza-hazkundera koherentea, kohesionatua eta koordinatua izan dadin.

105. Legearen ikuspegitik berraztertu behar da Maristen eta Salestarren proiektuak, eta II. Zabalguneko auzotarrei eskaini, haien onespenerari buruz erabakitzeko aukera.

106. Plan berezia egin behar da Magdale-narako, eremu hori ekoizpen-esparru gisara gordetzeko, haren landa-, nekazaritza- eta abeltzaintza-elementu guztiekin.

107. Atzera bota behar dira –eta haiek indargabetzeko eskatu– hala Salestarren nola Prestakuntza Handiko Trenaren udalez gaindiko plan sektorialak, Iruñearen interesen kontrakoak izateagatik.

108. Konpromisoa hartzen dugu auzoetako bizilagunek parte har dezaten zuzenean eragiten dieten hirigintza-erabakietan, erabaki horiek hartu aurretik haiei kontsulta eginik eta proposamenak egiteko aukera emanda, halako eran non proposamen horiek proiektuetan sartu edo ez aztertu egin beharko baita.

109. Aztertu behar dugu, eta baloratu, Mendillorriko igogailua eraikitzeo enkarguaren egoera.

110. Jarraipena eman behar zaio harresi-multzoa birgaitu eta mantentzeko prozesuari, herritarren aisiarako duen balioa nabarmenduta, monumentu historiko-artistikoa den aldetik.

111. Plan bereziak egin nahi ditugu Milagrosa-Arrosadia, Andre Maria Erregina, Txantrea eta Sanduzelai auzoak zaharberritu eta birgaitzeko, eraikita dagoen ondarea eguneratu eta modernizatze aldera, jasangarritasunaren eta energia-aurrezkiaren irizpideei helduta.

112. Jarduketak egiten jarraituko dugu egoera ahulean zein narriaturik dauden bost eremuetan.

## Merkataritza

113. Merkataritza jarduna bizirik iraunarazi nahi dugu hala erdigunean nola auzoetan, merkataritxi txikiek eta ertainek egiten duten lana babestuz eta sustatuz, Iruñeko auzoetako merkatarien elkarteekin batera.

114. Ekintzaileei sostengua eta laguntza eman nahi diegu, eta bereziki, elkartasun-ekonomiko enpresa-proiektu berriei. Aldatu nahi ditugu jarduera ekonomikoak edo merkataritzakoak ezartzera bideratzen diren diru-laguntzak, halakoak bideratzeko dela hirian gainbeheran dauden inguruetara, dela merkataritza-ardatzetan bigarren mailakoak direnetara, faboratuz gazte ekintzaileak diruaren aldetik eskuratzeko modukoak diren lokaletan koka daitezela, beren jarduerak garatze aldera. Sustatu nahi dugu itxita dauden udal-eraikinen eta -lokalen lagapena, proiektu askotarikoak eta autogestionatuak garatzeko, kulturaren, ekonomia sozialaren eta autoenpleguaren inguruan.

115. Iruñeko hiri-merkataritzari buruz egindako azterlana oinarritzat hartuta, Merkataritza Antolatu eta Erakargarri egiteko Plana osatu nahi dugu. Plan horrek hauek guztiak zehaztuko ditu: merkataritza-ardatzak, hala oinez nola garraio bide publikoak baliatuta merkataritza-establezimenduetara iristeko ezar daitezkeen moduak, laguntza-neurriak bertako dendetan sare telematikoak jartzeko –salerosketak Internet bidez egite aldera–, merkataritzarako lokalak birgaitzeko laguntzak eta erosketa-kateak sortzeko bultzada.

116. Aztertu behar da hirigintzako plangintzan merkataritza-jarduera antolatzeko irizpideak eransteko aukera, jarduera hori etxabeetan gauzatzearen alde eginik, eta eraikinak osorik erabiltzeko aukera mugatuta.

117. Ordenantza bat egiteko aukera aztertuko dugu, hutsik dauden lokalen jabeek exijitze aldera lokalak egoki mantentzen dituzaten eta haien itxura zaindu dezaten. Nolanahi ere, gauza bera exijitu behar da udal-lokalen kasuan. Horrez gain, hiriko fatxadetako garbiketa bertikala hobetu beharko dugu.

118. Auzoetako dendak berreskuratzeko laguntza-plana, ingurumen- etika- eta gizarte-irizpideei loturik eta askotariko laguntzak emanez (Donibane Zabalik, Arrotxapea Zabalik, Arrosadia Zabalik...)

119. Ikusita nola dagoen ostalaritza Alde Zaharrean, premiazkoa dugu bertako zenbait gunetabernetz ase deklaratzeko. Gure ustean argi dago zein diren gunek horiek, baina aztertu behar da eragin-eremu bat haien ondoan zedarritzeko aukera, arazoa heda ez dadin. Horrez gain, Alde Zaharreko gainerako parteetan ostalaritza-lokalen arteko distantzia-sistema bat ezarriko da, elkarbizitza sustatzeko merkataritzaren, ostalaritzaren eta auzotarren artean.

## Kanabisaren autohornikuntza-lokalak

120. Ordenantza bat egin behar da kanabisaren autohornikuntza-lokalak baimentzeko. Bai

eta jardunbide egokien eskuliburu bat ere. Auzo-bitartekaritzari heldu behar zaio.

## Turismoa

121. Sektoreko elkarrekin elkarlanean arituta, Udaleko Turismoaren arloa bultzatuko dugu, turista berriak erakartzeko politika aktiboak sustatuta. Horretarako, Iruñeko marketin turistikoko plan bat garatuko dugu, jasangarria eta hiria eta kultura uztartuko dituen marka bati lotua, non bateratuko baitira hiriko iragan historikoa eta etorkizunera begirako proiektu berriak. Horrez gain, Nafarroako Gobernari exijituko diogu egun duen politika turistikoa aldatzeko, gure hirian dituen eskumenak alde batera utziak baititu, guztiz.

122. Iruñeko turismoa urtaroei lotuta egoteari utz diezaion, arreta berezia eman beharko diegu kultur turismoari eta turismo gastronomikoari, biltzarretakoari eta nazioarteko topaketei, bai eta topaguneei zein ikerguneei ere –hala zientifikoei nola gizarte-berrikuntzakoei eta bestelakoei–, betiere turismo arduratsuko eredu bat bultzatzen saiatuta.

## Hezkuntza

123. Haur-eskolen sarea hobetzea. Aztertu behar dira egungo finantzamendua eta egin daitekeena, tasak murrizteko eta gehikortasun handiagoa sustatzeko, diru-sarrerentzako. Aztertu behar dugu zer eragina duen egonaldi murriztuen eskaintzak haur-eskoletan, dela baliabide gutxiak familiengana iristeko orduan, dela eskaintzen den heziketa-ereduan duen efektuari dagokionez. Sendotu behar dugu eskola guztien kudeaketa publikoa, eta haur-eskoleta gainerako hezkuntza-zikloen parekotasun hartu behar dugu. Euskarazko eskariari erantzun behar diogu.

124. Plan bat egin behar da Iruñeko ikastetxeetan premia handieneko erreformak detektatu eta lehenesteko.

125. Familia-eskola bat jarri behar dugu martxan, haur-eskoleta familiari zerbitzua emateko.

126. Familiekin lan egiteko esparruak sortu behar dira. Familiaguneak deitzen zaie, eta laguntza-leku bat eskaintzen diete astean bitanedo 0 eta 3 urte bitarteko haurrak dituzten familiei, haurrak edozein dela kausa haur-eskola batera joaten ez diren kasuetan.

127. Gune bat sortu behar dugu, Udalaren haur-eskolen erreferentzia izanen dena. Bertan koka daitezke hala zuzendaritza nola zerbitzu teknikoak, bai eta dokumentazio-zentroa eta zenbait areto ere, prestakuntzari eta gure haur-eskolek hasieratik garatu duten izen handiko eredu pedagogikoa balioesteari zuzenduta. Iruña nazioarteko haur hezkuntzako zirkuituan nabarmentzeko, ikasketa-egonaldiak eta bidaiak susta daitezke, Europako erreferentziako beste ikastetxe batzuetara joateko antolatzen direnen eran.



## Kultura

128. Kulturaren Udal Kontseilu Sektoriala sortu behar dugu, bertan parte har dezaten erakunde eta entitate guztiek, sortzaileen ordezkariak eta horretan interesa duten pertsona guztiek.

129. Kultur Plan Estrategikoa egin behar da, halakoa non parte hartu beharko baitute Udalak berak, elkarteak eta kulturaren arloan diharduten enpresek, eta bereziki, Iruñekoak. Kultura librea sustatu behar dugu, kultur ondarea herritar guztien eskura jarritz eta software librea, wifi irekia eta copyleft lizentziak sustatuz administrazioan eta udal-zerbitzuetan.

130. Proiektu bat abiatu behar dugu Zitudadela, parke publikoa izateaz gain, arte-sorkuntzarako laborategi eta inkubagailu ere bihurtzeko, halakoa non bat egin ahalko baitute sorkuntzari, komunikazioari eta teknologia berriei lotutako diziplinek. Bertan, prestakuntza, ekoizpena, banaketa eta erakustaldiak bultzatu behar dira, betiere kontu handiz erreparatuta haren ondare-balioari eta -egoerari.

Bertan, bestalde, zenbait lokal kokatuko dira sorkuntzari, ekoizpenari eta entseguen berriak bideratuak, bai eta sortzen diren proiektuetara zuzendutako ekoizpen- eta komunikazio-bulego bat, hiriko kultur ekoizpena bultzatzeko.

131. GELTOKI (autobus-geltoki zaharra). Espazio multifuntzionala, bere baitan hiri osoari begirako merkatuak, erakusketak, kontzertuak eta gizarte- eta kultura-ekimenak hartu ahalko dituena, eta azoka sozial eta solidario iraunkor baten osagarria izanen dena.

132. Gizarte-etxeen (Civivox) eta Gizarte Ekinenarako Zentroen sarea handitu eta finkatu behar da, halako zentroak auzo bakoitzeko komunitate-garapenerako tokiak izan daitezkeen heinean; haietan, kogestio-eredu bat abi-

arazi behar da, Udalaren eta erabiltzaileen artekoa, non gauzatuko diren programek balio jakin batzuk sustatu behar baitituzte, hala nola genero-berdintasuna, kulturartekotasuna, belaunaldien arteko harremanak eta partaidetza gizarte-bizitzan. Gizarte-etxe guztiek (AUZO-GUNEAK) irekita egon behar dute klase orotako arte- eta sormen-jardueretan aritzeko eta haiek erakusteko erabiltzeari eta halakoekudeaketari.

133. Ludoteken sare bat osatu behar da, auzo guztietara zabaldua, dela dauden guneak erabiliz (auzoguneak), dela beste batzuk sortu edo itunduz (direla ikastetxeak, direla erabiltzen ari ez diren etxabeak).

134. Hiriko liburutegi publikoen ordutegia luzatu behar da, eta haien erabilera sustatu. Liburuen eta kulturaren aldeko ituna egin behar da.

135. San Frantzisko plazako liburutegia liburutegi nagusi baten gisara eratu behar da, Alde Zaharrari zein hiri osoari begira.

136. Sanferminak herri-jai partizipatibo gisa berreskuratzeko premiazko neurrien plana egin behar dugu, oinarri-oinarritik abiatuta eratuz, elkarlanean arituta auzotarrekin, jai-eragileekin eta hiriko elkarte-sareko ordezkariarekin.

137. Kaleko Antzerki eta Arteen Nazioarteko Jaialdia, arte eszenikoetan biltzen diren diziplina guztiak bilduko dituena –hala nola antzerkia, dantza, musika...–, haien hedadura eta fusio guztietan. Honako toki hauetan eginen da: kalean bertan, eta harriesietan eta hiriko toki esanguratsuetan kokatuko diren hainbat agertokitik.

138. Sinergiak eta loturak sortuko dira beste jaialdi batzuekin: Erriberri, Lizarra, Gasteiz, Donostia, Getxo, Bartzelona eta beste zenbait hiri, zeinekin antzeko kultura-ildo eta -estrategiak partekatu baititzaizkegu.

## Euskara

139. Euskararen Ordenantzaren jatorrizko espiritua berreskuratu nahi dugu, eta hura eguneratu eta garatu. Ordenantza zorrotz betetzen dela segurtatu nahi dugu. Toponimia-batzordea berreskuratu nahi dugu (hiriko kale-izendegi elebiduna ofizialtzeko), eta hizkuntza-eskakizunei eta udal-plantillari buruzko azterlana eguneratu.

Hizkuntza Normalizaziorako Plana egin nahi dugu, euskaraz bizitzeko eskubidea xede hartuta.

Eta auzo-planak ere bai, euskarazko jarduerak eta asoziazionismoa sustatzeko.

140. Euskara sustatzeko (jarduerak, kanpainak...) aurrekontu-partida handitu nahi dugu.

141. Euskararen Kontseilua eratu nahi dugu, bertan parte hartu ahalko dutelarik euskara sustatzearen alde lan egiten duten elkarteek.

142. Euskararen Ordenantza zorrotz bete behar dugu, eta hura aldatzeko proposamena eginen dugu euskararen sustapena hobetze aldera. Iruñeko kale-izendegi elebiduna onetsi behar dugu.

143. Egungo hizkuntza-paisaia aztertu eta pixkanaka aldatu behar dugu, euskararen presentzia bermatuz baldintza berdinetan.

## Teknologia

144. Smart City – Hiri adimentsua delako dinamika indartu eta zabaldu nahi dugu, NUPeko katedrarekin lankidetzan, Iruña informazioaren, ikerketaren, herritarren lankidetzaren eta komunikazioaren (IKT) hiri bihurtzea nahi dugun aldetik. Hiri produktiboa berreskuratzeko estrategia abiatu nahi dugu.

145. Azterlana eginen dugu pribatizatutako udal-zerbitzu publikoak arian-arian berriro publiko bihurtzeko.

146. Defendatzen dugu zerbitzu publikoen kudeaketak zuzenekoa eta partizipatiboa izan behar duela, eta eduki behar dituela herritarrek esku hartzeko mekanismoak. Zuzeneko kudeaketa posiblea ez bada, ekonomia sozialeko enpresak lehenetsiko dira zerbitzu publikoak esleitzean, bai eta irabazi-asmorik gabeko entitateak edo langile-kooperatibak ere, eta batez ere, xedetzat pertsonak gizarteratzea edota lan-mundura bideratzea dutenak.

147. Zerbitzu Publikoak emateko Kontrol Erregelamendu bat eginen dugu, pertsonen bermatzeko, Iruñean, haien oinarrizko eskubideak asebetetzeko zerbitzuak, programak eta prestazioak eskuratu ahal ditzaten.